



LITERATURA UNIBERTSALA

PEPETELA

Utopiaren belaunaldia

Iñigo Roque Eguzkitza

Pepetela
Utopiaren belaunaldia

Iñigo Roque Eguzkitza
Itzultzailea

LITERATURA UNIBERTSALA

193

Jatorrizko izenburua:
A Geração da Utopia

1. argitalpena: 2026ko otsailean.

- © Pepetela, 1992. Agentur Mertin Inh. Nicole Witt e. K.-rekin egindako akordioaren bidez, Frankfurt am Main, Alemania.
- © Azaleko margolanarena: 2026, Alain Urrutia.
- © Egilearen argazkiarena: Jmendez (CC BY-SA 3.0).
- © Itzulpenarena: 2026, Iñigo Roque Eguzkitza.
- © Hitzaurrearena: 2026, Iñigo Roque Eguzkitza.
- © Argitalpen honena: 2026, EREIN eta IGELA argitaletxeak.

Maketazioa: A. Beltza
Inprimatzailea: Ulzama S.A.

ISBN: 978-84-1093-010-0
LG: D 168-2026


Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nabitzeakoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

Liburu honen itzulpena Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretuen Elkartearekin Literatur Ondare Unibertsaleko Obra Nagusien Bilduma euskarara itzultzeko sinatutako hitzarmenaren barruan burutu da.



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.



PEPETELA
1941

HITZAURREA

«Zerbait estrainioa astintzen ari da urak,
zerbait estrainioa dabil herrestan lurrean.
Urrun zegoen, hurbildu da, orain hementxe da».

(Ruy Duarte de Carvalho)

Pepetela

Artur Carlos Maurício Pestana dos Santos, «Pepetela» ezizenez ezaguna, Benguela-n (Angola) jaio zen 1941eko urriaren 29an. Benguelan eta Lubango-n ikasi ondoren, 1958an Lisboaara aldatu zen Ingeniaritza ikasteko. Han, Inperioko Ikasleen Etxean orduko intelektual afrikarrekin jarri zen harremanetan, besteak beste, Agostinho Neto poeta eta politikariarekin (Angola independenteko aurreneko lehendakaria izango zen). Honela mintzatu da Pepetela Etxeaz: «Handinahi arkitektonikorik gabeko etxe bat zen. [...] Nolanahi ere, eraikin apal hura koardoen haztegi bat izan zen hogeitaz urtez, hainbat herrialdetako Historian iraungo zuten etorkizuneko ekintzailleen haztegia» (Pepetela 2015).

1962an, Parisera alde egin zuen, eta handik gutxira Aljeriara. Aljerren Soziologia ikasi zuen, eta Angola Askatzeko Herri Mugimendurako (MPLA) hasi zen lanean, bai eta beste kide batzuekin batera sorturiko Angolar Ikasketen Zentroan ere.

Angolara itzulirik, gerrillarekin bat egin zuen, eta 1969tik 1974ra hezkuntza-arduraduna izan zen. Orduantxe hartu zuen Pepetela ezizena (*Pestana* ['betile'] abizena umbunduz). Herrialdeak independentzia lortu ondoren, hainbat kargu izan zituen, bai hezkuntza-arlokoak, bai arlo militarrekoak. 1975etik 1982ra, Hezkuntzako ministroordea izan zen. Geroztik, politikatik aldendurik, irakasle-lanetan jardun zuen Luandako Unibertsitatean, erretiroa hartu arte.

Gaur egun ere, han eta hemen idazten jarraitzen du, alderdikerietatik urrun: «Esango dute nire anarkia hau ez dela demokratikoa [...]. Halere, gero eta sine-tsiago nago alderdien gogoz bestera irau duela demokrazia apur batek» (Pepetela 2015). Aldi berean, bakar-nahi horri estoikotasun buruargi bat dario, proselitismo oro alboraturik: «Saiatzen naiz inoren sinesteei kontra ez egiten, gogoak emandakoa pentsa dezala bakoitzak, inor konbentzitzen ahalegintzeko aldia joana da niretzat». Liburuko Aníbal-Jakintsu pertsonaia bete-betean gogorarazten digute, bada, gogoeta horiek.

Obra

Idazlearen eta herrialdearen historiak gainazpikatzen dira Pepetelaren literaturan. Lehenbiziko eleberria, *Mayombe* (1979), gerrako frontean idatzi zuen. Hasieran irrati-rako gerra-komunikatu behar zuena pertsonaiaz popu-latu eta eleberri bihurtu zen. *Yaka* (1985) Benguelako familia kolonial baten bizitzari jarraikitzen zaio mende

batez. Kolonialismoaren aurreko garaia ere landu izan du *Lueji* (1990) eta *A Gloriosa Família* (1997) eleberrietan. Mende berriarekin batera, aldiz, satirara lerratu zen Angolako egoera jorratzeko. Jaidura hori nabarmena da Jaime Bunda detektibearen eleberrri beltzen sailean. Lan berrien artean, halaber, beste hauek ere aipatzekoak dira: *Predadores* (2005), Angolako agintari-klaseari egingdako kritika lakarra, *O Quase Fim do Mundo* (2008), alegoria postapokaliptikoa, eta *O Planalto e a Estepe* (2009), zeinak Angolaren eta bloke sozialista ohiko beste herrialde batzuen arteko harremanak lantzen baititu.

Utopiaren belaunaldia

Esku artean duzun liburua Berlinen idatzi zuen 1991n, beka bati esker. Egileak berak honela aurkeztu izan du, apal-txapal: «Angolaren independentzia lortu eta besterik egiten asmatu ez duen belaunaldi baten historia da, besterik ez» (Chaves eta Macêdo 2009, 42). Funtsean halaxe da. Pertsonaia batzuk oinarri hartuta (Sara, Aníbal-Jakintsu, Malongo, Vítor-Mundial), haien ibileren bitartez zirriborratzen digu herrialdearen azken hamarkadetako jitoa.

Testua lau kapitulutan antolatuta dago, bakoitza historiako aldi bati dagokiola. Lehenbizikoan, «Etxea (1961)», Lisboako Ikasleen Etxeko girora garamatza autoreak, Angolan borrokaren lehen txinpartak piztu ziren garaira. «Chana (1972)» izenekoak ekialdeko fronteko gerrillarien estualdien berri ematen digu. «Olagarroa

(1982)» gerra zibilaren garai betean gertatzen da, gerri-
lla utzitako pertsonaia baten ikuspegitik. Azken kapi-
tulua, «Tenplua (1991)», tragikomedia hutsa da, uto-
piaren kondarretan mamitua.

Angola

Angolara hurreratzean, aurrena komeniko litzateke ira-
kurleak Binyanga Wainana-k Afrikaz idazteko olgetan-
benetan emandako aholku hura gogoan hartzea: «Zure
testuan, Afrika herrialde bakarra balitz bezala jokatu»
(Wainana 2005). *Utopiaren belaunaldia* honetan, ha-
mahiru urte lehenago, antzeko gogoeta bat ekarri zi-
gun gure idazleak, pertsonaietako baten ahotan: «Gai-
nera, Bruselan eta Parisen Afrika frankofonoaren berri
baizik ez zeukaten. Musikari dagokionez, beste horren-
beste. Hainbeste Afrika ez balira bezala, bakoitza era ba-
tekoa...».

Angolaren historia ez zen portugesekin hasi. Lu-
rralde hartan lehendik baziren beste entitate batzuk
(Lunda inperioa, Ndongo-ko eta Kongoko erresumak),
kolonizazioaren garaiaren puska handi batean ere iraun
zutenak. 1482an Diogo Cão itsasturiak Angolako kos-
taldea joz geroztik, Portuges Inperioa jabetu zen Ango-
lako lurraldeaz; praktikan, lurralde osoaz ez, itsas hegiaz
baizik (nahiz Berlingo Konferentziaren ingurumarian
Angolatik Mozambikera bitarteko lurralde osoa bere-
tzeko ameskeria agertu zuten portugesez). Izan ere, por-
tugesen kolonialismoa ultrakolonialismotzat jo izan da,

«denetan primitiboena eta makurrena» (Anderson 1962, 90), metropoli «azpigaratu» batek erauzketa hutserako baliaturikoa (hasieran, zilarra eta esklaboak; gero, azukrea, kotoia eta kafea). Metropoliak laborari pobreak igortzen zituen koloniara, batik bat iparraldeko minifundioetakoak, biztanleria-soberakinei bide emateko (Pepetela mende batzuk lehenago iritsitako horien ondorengo da), baina ez zuen sekula koloniaren ekonomia suspertzeko batere asmorik izan.

Halako batean, kolonizatuek, kontzientzia harturik, askapen-gerrari ekin zioten, hamalau urtez, harik eta, Krabelinen Iraultzarekin batera, Portugalek herrialdearen independentzia onartu zuen arte. Ordurako, ordea, hasia zen senideen arteko gerra: alde batean, MPLA eta, bestean, FNLA (UPA) eta UNITA. Lehenbizikoa bloke sozialistarekin lerrokatu zen, eta Kubaren laguntza militarra jaso zuen. Bigarrenak bloke kapitalistaren babesa jaso zuen, eta Hegoafrika izan zuen aliatu militarrik irmoena. Gatazka betean, independentzia lortutakoan, MPLAk Angolako Herri Errepublikak Sozialista aldarrikatu zuen. Gerra zibila, baina, beste hogeita zazpi urtez luzatuko zen.

Irakurleak gertakari horien oihartzunak atzemango ditu liburu osoan. Lagungarri gisa, hona hemen aintzat hartu beharreko data batzuk (Wheeler eta Pélissier, 2011, 379-389):

1961. *Urtarrila*. Kotoiko langileen greba eta ondotiko errepresioa. *Otsaila*. MPLAk Luandan egindako erasoek porrot egin. *Martxoa*. UPAk gidatutako jaikialdia iparraldean;

hilkintzak. 1966. *Martxoa*. UNITA sortu. 1973. *Abendua*. MPLAren makalaldia ekialdeko guduagatik. 1974. *Maiatza*. MPLAren barruko matxinada. 1975. *Urtarrila*. MPLAren, FNLAren eta UNITAren arteko Alvor-ko Akordioak, independentziarako bidea zedarritzeko. *Martxoa*. FNLA, UNITA eta MPLA elkarren artean borrokan hasi. *Urria*. Hegoafrikako armadak Angola inbaditu. *Azaroa*. Independentzia deklaratu eta azken portuges soldaduak irten. Kubatarren tropak iritsi, «Carlota operazioa». MPLAk Angolako Herri Errepublikak deklaratu. 1977. *Abendua*. MPLA, Angolako Langileen Alderdia. 1985. *Uztaila*. Ekonomia marxista zentralizatutik merkatu libreko ekonomiarako trantsizioa hasi. 1991. *Maiatza*. MPLAren eta UNITAren arteko Bicesse-ko Bake Akordioak, AEBk eta SESBk ere sinatuak. 1992. *Iraila*. Hauteskunde orokorrak. MPLAren garaipen zabala. 1993. Gerra zibila gogortu. 1994. *Azaroa*. Lusaka-ko bake-protokoloa. 1998. *Abendua*. Gerra berriro hasi, MPLAk bake-prozesua utzi ondoren. 2002. *Apirila*. UNITAk armak utzi.

Asto zuriarenak eta beltzarenak hartutako herri bat erakusten du kronologia xume horrek, baina Pepetelak ez du, halere, angolarrenganako konfiantza galdu. Izan ere, belaunaldi gazteko idazle handi baten pertsonaia baten dioenez: «Herriak zer ospatua bilatzen du beti, bere alegrantzia baizik ez zaio geratzen, hura ezin da aurreikusi edo erosi, gehienez ere hauspotu egin daiteke, eta, halere, kontrolaezina da» (Ondjaki 2012, 256).

Edizio hau

Angolako Idazleen Elkarteak 1990ean utzi zion liburuak argitaratzeari, kostuak gero eta handiagoak zirelako. Aldi luze batez, beraz, metropolian plazaratu izan dituzte angolarrak idazleek beren liburuak, egoera jadanik leheneratu den arren. Edizio portugesean, bada, liburuok hiztegitxo bat ekartzen dute eranskin gisa, hainbat baitira portugesez argitu beharra duten hitzak. Izan ere, Angolako portugesez bizian umbunduaren, kimbunduaren, mbudaren eta tokiko beste hizkuntzen ziprintinak ageri dira nonahi, halako moldez non batzuk *angolera* (eta ez Angolako portugesa) hizkuntza autonomo gisa aldarrikatzen hasiak baitira. Gu kreole ñabar hori osoki euskaraz ematen saiatu gara, euskal irakurleak angolarrak bezain aise irakur dezan testua, debaldeko exotismorik eta oin-oharrik gabe.

Ngugi Wa Thiongo zendu berriak, seguruenik, afroeuropar literaturatzat joko zuen liburu hau: «Afroeuropar literatura inperialismoaren garaian afrikarrek europar hizkuntzak erabiliz idatzitakoa da» (Wa Thiongo 1986, 27). Nork uka inperialismoa oraindik ere indarrean dagoela. Eta, halere, nork uka europar hizkuntza izandakook, orain antzaldaturik eta mami-berriturik, dagoeneko afrikar ere badirela.

Itzulpena, lege onez, ez da bakarlanaren emaitza izan. Itzultzaileak, bada, eskerrak eman nahi lizkieke testua orrazten, hobetzen, fintzen bidelagun izan dituen guztiei.

Iñigo Roque Eguzkitza

- ANDERSON, Perry (1962): «Portugal and the End of Ultra-Colonialism (Part I)», *New Left Review* (I/15, maia-tza/ekaina).
- CHAVES, Rita eta MACÊDO, Tania (2009): *Portanto... Pêpetela*, São Paulo: Ateliê Editorial.
- ONDJAKI (2012): *Os Transparentes*, Lisboa: Leya/Caminho.
- PEPETELA (2015): *Crónicas Maldispostas*, Lisboa: Leya / Dom Quixote.
- WATHIONGO, Ngugi (1986): *Decolonising the Mind. The Politics of Language in African Literature*, Oxford: James Currey / Heinemann
- WAINAINA, Binyavanga (2005): «How to Write About Africa», *Granta* (92).
- WHEELER, Douglas eta PÉLISSIER, René (2016): *História de Angola*, Lisboa: Tinta da China.

Pepetela
Utopiaren belaunaldia

ETXEA

(1961)

Beraz, zikloak baizik ez ziren betierekoak. (Letren Fakultaterako sarbide-probaren ahozkoan, Lisboan, aztertzaileak galdera bat egin zion idazlegaiari. Zailantzati erantzun zuen, «beraz» batekin hasita. Nongoa zaitugu, jauna?, galdetu zuen irakasleak, eta idazleak Angolakoa zela erantzun. Berehala ohartu naiz ez dakizula portugesez, orduan ez dakizu «beraz» hitza bakarrik erabiltzen dela arrazoibide bati buru emateko? Halaxe esan zuen, azterketaria lotsarazteko. Horra nondik datorkion egileari amorrua agintzeko egunen batean hitz horrekin hasiko zuela liburu bat. Bete du agindutakoa. Eta parentesi honen ondoren, hogeita hamar urteko herrera osasungarri baten erakusle, egilea ezkutatu egingo da betiko eta tenorez.)

Eguna bereziki argitsu eta beroa zen Lisboako apirilerako. Bezperan euria egin zuen gau osoan, urtaruari zegokionez, baina gaur Eguzkia hain zeru oskarbian sortu zen ezen mingarria baitzen hegaldatu ezin izatea. Sarak besoak gorririk zabaldu zituen. Alferrik, ez zen txori jaioa.

Pixka bat ibiltzea erabaki zuen, autobusaren hurrengo geralekuraino, eguzkiaz eta beroaz gozatzeko. Han, Unibertsitate Ospitaletik gertu, jende gutxi zebilen kalean.

Jende kopetiluna, ospitalera zihoana edo handik zeto-rrena. Gaixotasun zinezko edo ustezkoren batek kezkatu-rik. Gaixorik ez badaude, etorkizuneko gaixotasu-
nek dituzten kezkatzen. Portugesak beti zerbait behar izaten din malenkoniatsu egoteko. Eta osasuna ez bada, familia dun, edo bestela lana. Herri tristea, pentsatu zuen Sarak. Erregimen politikoagatik da ala jendearen zeri-zanagatik? Ez zionagu denaren errua egotziko salazaris-
moari. Salazar bera triste samarra zunan, hitsa, bere erre-
gimen hitsa sortu aurretik ere. Elizgizon eta militar goibelen erregimena, lur gutxiko laborarien herri bati komeni zaionez. Izutu egin zen bat-batean: ez al dira ha-
lakoak ideia erreazionarioak? Aníbal galdetu beharra zeukan, halako gauzetan aditua baitzen ez bairik gabe. Halere, tristeak ditun, izan. Alde ederrekoa afrikarren alaitasun bizia, arduragabe-antza ematen diena. Hori ere ez zunan egia. Aníbal, esaterako, beti liburuei eta ideiei lotua, ez zunan tipo alaia. Eta Luandakoa zunan, mila erokerien hirikoa... Malongo, bai, Malongo tipo alaia zunan, sobera alaia ere bai. Sarak irribarre egin zuen zeru aldera begira, barrura bildurik berari so ez zeuden per-
tsonen aldera.

Geralekura iritsi zen. Bi emakume zeuden zain, bel-
tzez jantzita biak, oihal beltz bana buruan. Hileta bate-
tik datoz ala alorretik? Mezatatik beharbada. Edo alar-
gun direlako zauden horrela jantzita. Angolan Iparraldeko
matxinadan hildako ahaideengatik dolua egiten ari dira?
Baztertu egin zuen ideia. Ez dun hil propaganda ofizia-
lak dioen bezainbeste lagun. Salazarri komeni zaion his-
teria kolektiboko giroa sortzea, ehunka zuri terroristek

sakailatuak, Angola osoa sutan dago, Aberria eta portugesak defendatu beharra daukagu. Angolara Denok Batera! Propaganda arrakasta lortzen ari zen, onartu beharra zeukan. Afrikarrenganako susmo-giro astun bat zabaldu zen Lisboan. Ahopean hizketan hasiak ziren, lehen ardailan aritzen ziren arren beti algara artean. Eta herritarrak etsaikeriaz begiratzen hasi zitzaizkien. Ez zen hala gertatzen Sararekin, zuria baitzen eta, beraz, portugesak ontzat baitzeukaten lehen ikusian. Beltzak eta mulatoak ia atzamarrez seinalatzen zituzten, kafetegietan, zinema-aretoetan, kalean. Ustezko terroristen estigmak zekartzaten aurpegian. Zuri horiek oraindik ez dute asmatu tinta bat gure azala margotzeko haien antza har dezagun, esaten zuen Malongok, umore onari eutsita.

Autobusa iritsi zen. Zorionez, bi solairukoa zenez, goitik Lisboako ikusmiraz eguzkitan gozatzeko modua ematen zuen. Aurreko lekuetan eseri zen. Campo Grande eta Errepublikaren etorbidea hedatu ziren haren azpian. Polita dun hiria, ezbairik gabe. Onartu egiten zuen, Lisboako ia guztia desatsegin bazitzaion ere. Berehala bere neurrira ekarri zuen baieztapena. Ez dinat beste hiri handirik ezagutzen honekin alderatzeko. Benguela-n jaiotako, lizeoko azken urteak Lubango-n egin, eta duela ia sei urte Lisboaar etorri zen Medikuntza ikas-tera. Itsasontzia Luandan gelditu zen egun baterako, aitaren aldeko ahaideek pasieran eramane zuten. Inpresio guztiak gogotik xurgatu zituen, saiatu zen gogoan hartzen lur gorriaren kolorea eta itsasoaren urdinarekiko kontrastea, badiaren arku estua eta Ilha-ren berdea, oihalen askotariko koloreak eta emakume barazki-saltzaileen

erretolikak. Bazekien erbestearen hasiera zela. Luandatik irtetean gaina hartu zion erbestearen ideia horrek negar eragin zion, gauean itsasontzia badia argizatutik urruntzean. Denbora asko geratu zen alboko karelean, atzean utzitako lurraren argi eta urrinak azkenekoz ikusiz eta arnastuz. Inpresio horiek berarengan zirauten, oso-osorik, inperioko hiriburuan bizi ziren angolarrek etengabe hauspoturik. Gogoan al duzu Sofia, Langile Auzokoa?, galdetzen zuen batek. Haren kalean, bi etxe harago, ez al dago etxe urdin bat, Rita bizi izan zenekoa? Ez, ez dago etxe urdinik LAn, horiak dira guztiak. Bai, badago, Ritaren etxea urdina da. Eta aditu eta berrikusi egiten zituen iragaitzaz bakarrik zapalduak zituen kaleak, eta bazirudien beti bizi izan zela han. Beste horrenbeste gertatzen zitzaion Benguelarekin eta Malanje-rekin, eta Angola osoarekin. Bakoitzak bere umetako oroitzapenak gorde, eta besteei transmititzen zizkien, haiei norberarenak balira bezala bizi araziz. Eta urrutiko sorlekuaren ideia gero eta mitikoagoa ere bai, inpresio nahastekatuz osatua, non mbiraren kadentzia, goi-ordokiko frutak eta Namibe-ko basamortuko zebrak gurutzatzen baitziren. Distantziak betetasunaren distira eransten zien gauzei.

Aurkikunde-urteak izan ziren, lurralde absentearenak. Eta haren aldaketa-nahiarenak. Elkarrizketak Inperioko Ikasleen Etxean, non Afrikatik iritsitako gazteria elkartzen baitzen. Kolonien errealitateari buruzko hitzaldi eta mahai-inguruak. Bestelako ordena bat erakusten zuten poema eta ipuinen lehen irakurraldiak. Eta hantxe, inperioaren erdigunean bertan, portugesen kulturarekiko

aldeaz jabetu zen Sara. Bide luze eta aztoragarria izan zen. Konturatu zen umetan aditutako danbor-hotsek beste nonbaitera zeramatela, ez fado portugésaren aldera. Denentzako medikuntzaren galdea ez zettorrela bat egitura kolonialarekin, non batzuek denerako sarbidea baitzuten eta besteek ezertarako ere ez. Kolonietako umeen heriotza-tasa ikaragarria politika kriminal baten zuzeneko eta berehalako ondorioa ez balitz ere, politika hark larriagotu egiten zuen eta haren zerbitzuan aritzen zen. Iaz caboverdetar mediku batekin batera egindako mahai-inguru batean adierazi zituen ideia horiek. Mahai-inguru neurritsua izan zen, hitz-hautu zaindukoa, eta amaieran txalo-zaparrada bat ekarri zion, baina baita baten batek PIDEri, polizia politikoari, egindako salaketa-deia ere. Orain fitxatua zaitu PIDEk, kasu!, ohartarazi zion Aníbalék. Gurasoek ere gertatuaren berri jakin zuten Benguelan, auskalo nondik nora. Haien gutuna iritsi zitzaion, ikasketak ordaintzen dizkizugu mediku izateko eta ez ideia komunistak defendatzeko. Ez erabili izenondo irrigarririk, ideia bidezkoak dira, erantzun zuen, jakinik ez zituela konbentzituko.

Oroitzapenetan murgildurik, ez zion erreparatu ere egin hiriari. Duque d'Ávila-ko kantoian jaitsi zen, Arco do Cego aldera segitu zuen. Ikasleen Etxearen paretik igaro, eta Rialva kafetegira sartu zen, ezinbesteko topagunea bera. Nagusia agurtu zuen, Evaristo jaun musugorri jatorra, eta mahaietara begiratu zuen. Ikasleak zeuden ia guztietan, Etxearen kantinako bazkalorduen zain. Malongo ez zegoen. Vítor Ramos-ek keinu bat egin zion, neska hurbildu zen.

—Egun on, Vítor. Ikusi al duzu Malongo?

—Eseri gurekin, Sara. Goizetik joan da entrenatzaera. Iristekotan behar du. Ba al zatoz gurekin bazkaltzaera?

—Ospitalearen aurrean jaso behar ninduen. Beti bezala, berandutu egin da. Baliteke zuekin bazkaltzea, baina badaukat jatekoa etxean.

Vítor Ramos, zeinak egun batez Mundial izena hartuko baitzuen, Malongorekin bizi zen Praia da Vitória kalean andre bati errentan hartutako logela batean. Malongo etorri zen aurrenik, lau urte inguru lehenago, futboleko jokatzera eta ikastera. Klub handi batean aurkitu zuen lana, Benfican, eta gela hartu zuen errentan. Ez zuen lortzen, ordea, lehen taldera iristea, eta soldata ez zen handia. Etengabeko entrenamenduak zirela eta, ikas-teari utzi zion. Lagunek ekiten zioten lizeoa bederen buka zezan. Kasurik ez. Behin eta berriro suspenditzen zuen azken maila. Vítor urtebete geroago iritsi zen, Malongo beraren laguna egin zen, gela partekatzea proposatu zion, merkeago aterako zen betiere. Andreak ordain osagarri bat onartu zuen, atsegin ditut beltzak, tarteka zaratatsuak dira baina txintxoak. Irudi zuen Vítorrek lagun zaharragoaren bidetik segituko zuela, eta al baitaritzako lehen mailan kale egin zuen. Hurrengo saialdian gainditu egin zuen, baina bigarren maila berriro suspenditu. Bazirudik Praia da Vitória kaleko madarika-zioa dela, esaten zuen Malongok, belar batzuk erre behar ditiagu espiritu txarrak baretzeko.

Sarak ikasketez galdetu zion, eta berak beti bezala ondo erantzun zion. Eta hark galdera bera egin zion

neskari, eta dagoeneko bazekiena aditu zuen: uztailean titulua lortuko zuen, oker handirik ezean.

—Orain, bai, doktore andrea esan ahalko dizugu. Primeran, hartara gure jendea artatuko duzu.

Ordurako horretan ari zen. Etxeko medikuari kontsulta-ordutegiaren barruan lagundu ez ezik, bati eta besteari aholku ematen zien han bertan, kafetegian. Halaxe aritzen ziren Medikuntzako azken mailako beste ikasle batzuk ere, berarekin batera. Aurrena beldurrez, arduraren zamagatik, gero segurtasun handiagoz. Konfiantza hori Arménio doktoreak, Etxeko medikuak, itsatsi zion, zeren, txantxazalea izan arren, bazekien serioa ere izaten hala behar zuelarik. Praktika bikoitzak egiten zituen, beraz, ospitalean eta Etxean. Azken hori zuen nahiena, nabarmen. Herrikideei laguntzea zekarrelako? Eta baita Arménio doktorearen izaeragatik ere, nazionalista ezaguna zenez, ez baitzizkien afrikarrei kontsultak kobratzen.

—Malongo honezkero ez da etorriko —esan zuen neskak—. Entrenamenduak ez dira hainbeste luzatzen.

—Izango zuen beste zerbait ere egiteko. Lasai, iritsiko da bazkalordurako.

Vítor ez zegoen gustura Malongoz hitz egiten zenean. Zerbait darabil ezkutuan? Zertan ari da Malongo? Politikan ez behintzat, ez duk holakoetan sartzen, tartean behin ahoa berotzen zaiok besterik ez. Neskaren batekin geratuko zen? Larri ibili, babalore alaena. Ez zuen gogoko izan azken aukera hori. Zera, huskeriaren bat ere izan litekek, ez diat bere onetik aterako kontua.

—Ikasten ari al zara, Vítor? Azterketak laster dira.

—Hara, ikasten ari naiz. Azkenaldian, ordea, badakizu, gertatutakoak gertatuta, gutxi ariko dira benetan ikasten. Buruari bueltaka beti... Gogoia beste zer-baitetan.

—Bai, ez da garairik onena azterketak prestatzeko. Prestatu egin behar, ordea. Ahalegina egin beharra dago.

Neskarentzat ere ez zen erraza, batik bat praktiken txostena osatzea. Zer gertatzen ari da benetan Angolan? Zer da egia eta zer da erregimenaren propaganda? Eta nola egongo dira gurasoak han, gerra baten erdian? Gerra baita izen egokia, gobernuak esanak esan. Albisteek betetzen zituzten egunkarietako orriak, baina informazioa urria zen. Zentsura ahalegin betean ari zen, guraizeek inoiz baino gehiago ziharduten lanean. Egunkariak diskurtso aberkoiz betetzen ziren, Portugal bat eta banaezina da, erregimenaren aldeko adierazpenez, baina gertakariei buruz kontu zehatzik ez. Jakina zen Iparraldea matxinatua zela UPA erakunde ordura arte ezezagunaren esanetara, eta Lumumba-ren esanetara ere bai, hura etorkizunerako esperantza baitzen. Martxoaren 15ean hasi zen dena. Ez, lehenago, otsailaren 4an, Luandako presondegiei eraso zietelarik preso politikoak askatzeko. Ondotik errepresio beldurgarri bat hasi zen Luandan, nazionalisten artean milaka hildako izan zirela zabaldu zen. Horretan ere misterioa, zeinek egin zituen ekintzok, zein zen helburua? Gero martxokoa jazo zen Iparraldean. Zurien kontrako matxinada bat, kafesail handien jabeak hil eta herriak arpilatu zituzten. Horixe zen bederen gobernuaren propaganda. Ikasleek beste iturri batzuetatik bildutako informazioek berretsi egiten

zuten gobernuaren bertsioa. Ez zen, ordea, guztia intoxikazio hutsa izango? Kontua zen UPAz soilik zekitela zuri eta mulatoak kanporatu nahi zituela Angolatik. Sara ezin zen bat etorri. Lagunak ere ez, programa politiko koherente bat nahi zuten. Solas eta ideia-truke horietan ematen zituzten egunak, erasian. Ba al zegoen hala ikasterik? Vítorrentzat are okerrago zen egiaz. Huambokoa zen, eta handik ez zetorren istilu handien hotsik. Errepresioa han ere izango zen, halere. Eta propagandak hauspotutako arrazakeria jasaten zuen Portugalen. Sarak eskuan jo zuen.

—Ez da erraza, ez. Baina gure lurrari gehiago laguntzen diozu ikasiz egonezinak harturik baino, burua nekatu besterik egiten ez duzu eta.

—Badakit —esan zuen irribarrez—. Ez dizut ezer eskaini, baina. Kaferik nahi?

—Ez, lasai. Han dator Malongo.

Harroko-ibileraz sartu zen, beti bezala. Handia eta indartsua zen, aurpegian irribarre bat zekarren alderik alde. Ugazabari bizkarreko bat eman zion, zer moduz hezurrok, Evaristo jauna? Eta ia bota zion erretilua lurrera. Evaristok, kafeen erretiluaren orekari kostata eutsi eta irri murriz bat egin zuen, kontuz txikitu egingo didazu-eta etxea. Baina kafeak erori balira ere, nagusiak barkatuko zion, ez al ziren biak Benficakoak? Malongok mahai aldera egin zuen, musu zaratatsu bat eman zion Sarari ahoan, eta neska kexatu zen: hire zain egon nauk.

—Arrazoi dun. Baina, hara, aspaldi ikusi gabeko tipo batekin topatu naun autobusean, eta Malanjez hasi

zaidan kontu-kontari. Garagardo bat hartu dinagu. Heldu berria dun handik. Barkatu, baina hango berri izan beharra neukanan.

Egia ere izan zitekenan, pentsatu zuen Sarak. Ma-longorekin ez zegoen jakiterik non hasten zen gezurra edo txantxa. Vitorrek berehala galdetu zion ea zer kon-tatu zion, Malanjen ere gerra al dago? Hitz beste egiteko beharbada.

—Ba, liskarrak hasi aurretik alde egin omen zuen handik, otsailean. Atxiloketa pila bat egon da Malanjen eta Luandan. Riquito, nire lagun bat, preso hartu zuten Malanjen. Baixa de Kasaanje aldean aire-bonbardaketak ere izan dira. Laborari mordoa hil dute. Luandan izu-ikarak harturik omen daude denak, zuriak beltzengatik eta beltzak zuriengatik. Zuriak zerbitzari beltzak kalera-tzen ari dira, pozoituko dituzten beldurrez.

—Eta UPA? —galdetu zuen Sarak.

—Guk bezainbeste daki. Hemen izan du horren berri.

—Eta nork egin zituen erasoak Luandan, otsailean? Orduan hantxe zegoen.

—Ez, ez daki ezer. Hotsa zebilen apaiz bat ote zen burua. Baina jende guztia beldur zen, inork ez zuen deus esaten. Dena klandestino da... Luandako Sportingek irabaziko omen du txapelketa. Mutiko bat daukate, zo-ragarria.

—Utzi futbola, goazen bazkaltzera —esan zuen Sarak.

Kalea zeharkatu, eta Ikasleen Etxera sartu ziren. Le-hen solairuan zegoen kantina. Mahaien artetik igaro

ziren, jadanik tokia hartuta zeudenei agur eginez. Aní-
balek, atzeko mahai batetik, keinu bat egin zien. Hare-
kin jesarri ziren. Malongok berehala galdetu zion:

—Lisboan ordu honetarako, Aníbal? Desertatu al
duzu?

—Bi eguneko baimena lortu dut. Badituz kontu
batzuk konpontzeko.

Aníbal, zeinari geroago Jakintsu esango baitzio-
ten, miliziako subofiziala zen. Aurreko urtean amaitu
zuen Historia eta Filosofia, eta soldadutza egiten ari zen.
Mafra-n instrukzioa amaitu eta gero, Lisboa ondoko in-
fanteria-unitate batera igorri zuten. Astero azaltzen zen
Etxean lagunak ikusteko. Beti bezala, kaleko jantzita ze-
goen. Uniformea kuartelean bakarrik, esaten zuen, de-
seroso samarrik bere militar izate hartan. Sarak Ango-
laren berri galdetu zion.

—Ezer gutxi dakit. Bakarrik ontziak erreskadan bi-
daltzen dituztela soldaduz beterik. Nirekin instrukzioa
egindako ofizial batzuk dagoeneko joan dira hara, eta
beste batzuk mobilizaturik daude. Unitate osoak doaz.

—Eta zu? —galdetu zuen Malongok—. Zu ere ba-
zoaz?

—Nire unitatea ez dute mobilizatu oraindik.

—Eta mobilizatzen badute? Joango al zara?

—Holako galderarik ez da egiten, Malongo —esan
zuen, zakar.

—Kuartelean zabaldu da kontraofentsiba bat pres-
tatzen ari direla Iparralde osoa berreskuratzeko. Luan-
dan biltzen ari dira tropak, Dembos aldera bidaltzeko,
han kontu onik ez dago eta. Oraindik denbora beharko

da, ordea. Ezin da egun batetik bestera nahikoa soldadu batu Iparralde osoa okupatzeko, lurralde hori Portugal halako bi edo hiru da. Eta baso horiek... Osaba bat nuen Nambuanguongo-n, batzuetan oporrak pasatzen nituen han. Ufa, oihana eta oihana, besterik ez. Gerrilla ondo antolatu batek betiko euts liezaioke.

—Eta zure osaba? —galdetu zuen Sarak.

—Gurasoek ez dute haren berri. Nolanahi ere, badirudi Luandan inork ez duela ezeren berri. Kafe-sail txiki bat zeukan, txiki-txikia, beti auzoko lur-jabe handi portugesen mehatxupearan zegoena, lurrak kendu nahi zizkiotela eta. Jakina da UPAk jopuntuan dituela latifundista zurien langileak, Huambo-koak gehienak, Vítorren probintziakoak. Baina ez dakit eskualdeko bertako latifundista beltzei ere erasotzen dien.

—Osabak bat egingo al zuen UPArekin? —esan zuen Vítorrek.

—Batek daki —esan zuen Aníbalek—. Esaguzu, baina, Malongo. Zure Benficak galduko du Porton igandean, ezta?

—Utikan, Benfica inoiz baino hobeto dabil. Ni ordezeko gisa ere joan ez arren. Ez dut ulertzen. Entrenamendu guztietara joaten naiz, sasoi ederrean nago. Baina filialarekin bakarrik ateratzen naute. Begizkoa botako zidaten edo.

Hizpidea futbolera lerratu zen, Aníbalek eta Malongok hartaraturik. Sarak ulertu zuen, Aníbalek ez zuen kontu serioez hitz egin nahi besteekin. Malongo mutilarentzat futbolari bat besterik ez zen, argi gutxikoa, horixe bota zion behin, neska Malanjekoarekin maitemintzen

hasi zelarik. Ez dut ulertzen, Sara, zer ikusten duzun zuk, ia medikua, mutil horrengan. Konforme, jatorra da, ederra ere izan liteke, baina hain da buruarina... Sarak Lisboara iritsi zenetik ezagutzen zuen Aníbal. Halako batean onartu zuen adiskidetasunetik haragoko harreman bat sortzeko egokiera bazegoela. Mutila, aldiz, ez zen ezertan saiatu, eta, ohiturak gizonak aurrea hartzea eskatzen zuenez, ez zen harago joan kontua. Solasaldi ugari eta zinemarako irteera asko. Besterik ez. Vítorrez den bezainbatean, Aníbalentzat mutil oraindik lausoa zen, bazeukan hari gauza batzuk kontatzea, baina ez zen eremu sekretuagoetan menturatzen. Neskarekin bakarrik irekitzen zen. Futbolari buruzko solasetik aldendu zen Sararen gogo, ez baitzitzaien interesatzen, eta jangelara begira paratu zen.

Mahai guztiak beteta zeuden, launa lagunekin. Gehienak angolarrak ziren, denak batera, zuri, beltz eta mulato, azkenak ugarienak izanik. Caboverdetarrak, zeinak angolarrekin aise nahasten baitziren, mulatoak ziren ia guztiak. Ginearrek eta saotometarrak, bakana-goak, beltzak. Mozambiketarrak zuriak ziren gehienak. Eta taldeka elkartzeko joera izaten zuten. Zuriak huts-hutsik osaturiko mahai bat, dudarik ez, mozambiketarrak. *British colony* bat, angolarrek ironiaz esaten zutenez. Baziren salbuespenak noski, hala nola harako mahai hura non Belmiro, ginear beltz bat, hiru mozambiketar zurirekin eserita baitzegoen. Baina halaxe fortunatu zelako, Belmiro berandu iritsi eta leku huts bakarra mahai hartan baitzen. Aukeratu ahal izatera, beste mahai batean eseriko zen, elkarrizketa ohi baino

beroagoa zelako ere bai. Angolarrek ez zeukaten hainbesteko erreparorik, azkenaldiko gertakariak gorabehera. Hala ere, neskak sumatu zuen bazela hesi sotil bat marrazten hasia zena, pertsonak bereizten zituen zer-bait oraindik lausoa, angolar zuri batzuk mozambiketarren taldeetara bulkatzen zituena. Arraza jatorri geografikoaren gainera? Hara, mamuak ikusten hasita nagon berriro. Ez al zuen berak sumatu, angolarren taldeetara hurbiltzean, aurpegi batzuk uzkurrago zeudela, solasak eteten zirela? Bai, baziren halakoak. Normala. Angola arrazen arteko gerra baterantz ari zen itxura guztien arabera, errepresioa selektiboa zen. Horrek bazuen bere isla Lisboan.

Bazkaria amaitu, eta Rialvara joan ziren laurak. Malongok hiru kafesne eskatu zituen besteentzat, eta jogurta beretzat. Kirolari batek ezin zuen kaferik edo ardorik hartu. Arau horiek betetzen zituen, Benficako titularra izan nahi zuen. Erre egiten zuen, ordea, klubaren isilean, ezin zuen utzi. Sarak jarrera horren kontraesana aipatzen ziolarik, barre egiten zuen, hik erretzen dunanez neuk ere erre behar, bestela nazkagarria luken hiri musu ematea, hire tabako-kiratsa igarriko niken. Eta pitxar batzuk garagardo ere hartzen zituen, ez dun kaltegarria, garagardoak alkohol gutxi zukan.

Handik gutxira Vítorrek adio esan zien, ikasi beharra daukat, eta Malongo abaguneaz baliatu zen harekin batera alde egiteko, aurretik Sararekin seietarako hitzordua jarrita, arratsaldean ez zaukanat entrenamendurik. Neskak buruarekin baietz egin zuen, eta mutilak musu eman zion. Bi lagunak joan ziren. Isilune baten

ondoren, Aníbalek galdetu zion neskari ea zer moduz zebilen Malongorekin.

—Ondo. Tira... Berarekin, hinki-hanka egon behar beti. Joan-etorrika dabil, huts egiten ditu hitzorduak, beti badu egiteko misterioetsuren bat. Maitekorra da, ordea, eta profesional serioa izaten saiatzen da.

—Bai, futbola serio hartzen du, agidanez. Ez naiz aditua, baina harrিতa nago nola ez den oraindik lehen taldera iritsi.

—Serioa da horretan, futbola beraren bizia da. Eta musika. Gitarra bat erosi du, eta ezkutuan ikasten ari da orain. Seguruenik egiteko misterioetsu horiek guztiek gitarra jotzen ikastearekin dute zerikusia. Lehengo egunean halaxe izan zen. Etxera deitu nion egiaztatzeko. Eta etxeakoandreak erantzun zidan logelan zegoela, gitarra aditzen zen eta. Galdetu nionean, esan zuen, a, zertxo batzuk ikasten ari naun. Ondo jotzen jakin arte ez da agerira aterako eta ez du deus esango.

Aníbalek gero Baixa aldean osteratxo bat egitera gonbidatu zuen. Neskak ikasketa-amaierako tesian lan egin beharra zeukan, uztailean defentsa baitzuen, baina baiezkoa eman zion, arratsalde batek azken batean ez zekarren atzerapen ezin konponduzkorik. Autobusa hartu zuten, eta isilik joan ziren, etorbideetako jende-pasari so. Jende asko zebilen oinez, arratsalde eguzkitsua lagun. Avenida da Liberdade-n jaitsi ziren, Baixaraino pasieran joateko. Mutilak ekin zion solasari, zurekin hitz egin nahi nuen bakarka. Ohartuta nengoen, irribarre egin zuen neskak.

—Egoera larria da. Errepresio asko dago, PIDEkoak beren onetik aterata dabilta. Buru-belarri ariko

dira Etxea ikertzen. Oraintxe haien jomuga nagusia da, nonbait. Ez da komeni Etxean edo Rialvan gai larriez mintzatzea. Erreparatu al diozu kafetegian gure ondoan eserita zegoen tipo kapeladunari? Ez dio inori ziria sartzten. Kuartelean ere zelatatua sentitzen naiz. Badut beti baten bat inguruan, lehengo egunean miaka ibili ziren nire apalean. Liburuak txukun zeuden, baina ez nik beti uzten ditudan moduan.

—Eta ba al zeneukan liburu arriskutsurik?

—Poliziakoekin ez dago jakiterik zer den, eta zer ez den, liburu arriskutsua. Han badauzkat Matthias-en *Estatu Batuen autopsia*, esaterako. *Esku zikinak*, Sartrerena. Filosofia eta Historiako liburuak, joera guztietakoak. *Historiaren prozesua*, Zamorarena, hori marxista da. Jakingo al dute, baina?

—Orain ez zara hasiko, barren, atzera begiratzen etengabe...

—Nire paranoia izan daiteke. Baina liburuetan miaka ibili direla, horixe baietz. Eta Etxean PIDEren informatzaileak badaudela, hori ere egia da. Lepoa egingo nuke kapeladuna PIDEkoa dela.

—Bai, kontuz ibili beharra dago. Gure jendea zaintzapean daukate, bistakoa da.

—Armadan, mesfidantza-giroa dago. Egun osoan diskurtso aberkoi sutsuak egiten dizkigute, hitzaldiak batik bat miliziako ofizialentzat. Badakite miliziako gehienak, denak unibertsitateko gazteak, oposiziokoak direla. Batzuk aurrerakoiagoak, beste batzuk ez hainbeste, baina oposiziokoak. Halere, zein izango dira ofizialak gerran? Miliziakoak, ia ez dago besterik. Horra

zergatik eskaintzen dizkiguten hain amultsuki hitzal-
diak, diskurtsoak eta tartean PIDEkoak gu zelatatzeko.

—Horregatik eskatu zenuen baimena, asteburu-
ren zain egon gabe?

—Horregatik ere bai. Gure jendeari abisatu beha-
rra dago, kontuz ibiltzeko. Eta, gainera, kanpotik gutun
bat jaso dut, ez galdetu ez non ez zeinek bidalia. Atze-
rrian beste alderdi bat aipatzen hasiak dira.

Gibelera eta alboetara begiratu zuen. Etorbideko
pasealekua oso luzea zen, eta jende gutxi zebilen, ba-
zeukaten gogara solastatzea.

—Mário de Andrade eta Viriato da Cruz daude
buru, kanpoan behinik behin. Diotenez, haiexek anto-
latu zituzten Luandako presondegien kontrako erasoak.
Angolako Askapenerako Herri Mugimendua du alder-
diak izena, MPLA.

—Izen arraioa! Eme-pe-ele-a. UPak askoz soinu
hobea du, eta errazagoa da.

—Hor konpon izena, ez zaio axola. Programak du
ardura.

—Eta zein da?

—Bidali egingo didate. Idatzi didanak, ordea,
esan dit gure jendeari UParen izaeraz ohartarazteko,
Iparraldeko mugimendu tribalista bat da eta arrazista
gainera. Ez du ezer onik ekarriko. Oraintxe bertan,
Mário eta Viriato dira buru ezagunak, bi intelektual
handi, eta seriotasun-berme askoz hobek ematen di-
tuzte.

—Dударik ez. Ufa! Arindua hartu dut. Ezin duzu
imajinatu zenbaterainoko arindua!

—Neuk ere bai, horregatik etorri naiz segituan abisu ematera. Kolonialismoaren eta UPAREN artean aukera egin behar izatea ere... Hara, UPA, nolana ere, ez da hain txarra.

Barre egin zuten biek. Batez ere neskak. Aspalditik ez zuen hala barre egin. Eguzkiagatik, lagunaren konpainiagatik, zekarren albisteagatik. Kezkak aienatuak ziren, bizitza eramangarriagoa zen. Aníbal so egin zion, neskaren pozagatik zoriontsu zegoen, eta barre egin zuen berriro. Mutilak ere bai, baina neurritsuago. Praça dos Restauradores-era hurbiltzen ari ziren, eta jende gehiago zebilen, baita bide erdiko pasealekuan ere. Neskak besotik heldu zion, diskrezio handiagoz solastatzeko.

—Ez al da arriskutsua gutunok postaz jasotzea? Dena kontrolatuta daukate, eta zu fitxatuta zaude aspalditik.

—Bide segurutik datoz.

Aníbal txikia eta iharra zen, neska baino apur bat handiagoa. Begi sakonak, ezpain eta sudur ez oso lodiak. Maskal-antza hartzen zion bera ezagutzen ez zuenak. Haatik, neskak bazekien arras kontrakoa zela, berealdiko indarra zuela barnean. Ikasketak egitea lortu zuen, eliza protestante bateko beka bati esker, nota bikainak ateraz eta sarri askotan irakasleen pentsamoldeen erabat kontrako ideiak aldeztuz. Unibertsitateko giroan ospea hartua zen, eta jende asko, baita beste ikasketa batzuetakoak ere, joaten zen beraren ahozko azterketetara, polemikaren usainean. Publikoa gutxitan geratzen zen zapuztuta. Haren argudioen sendoaren aurrean, irakasleek kalifikaziorik gorenak eman behar izaten zizkioten,

azterketariak aldeztutako ikuspegi aurrerakoiak gora-behera. Ikasketa-amaierako tesiak probokazioaren traza hartu zuen, XIX. mendeko politika kolonialaren analisi bat izan zen, zeinean frogatu baitzuen Portuges Estatuak Angolako burgesia birrindu zuela hura diferentziaz jabetu eta jarrera autonomistearantz lerratzen hasi zenean Frantziako Iraultzaren printzipioen eraginpean. Behin baino gehiagotan jaso zuen PIDERen deia, jakina. Jar-duera politiko ezagunik ez zuenez, larderia hutsean geratzen ziren abisuok, hurrengo abagunearen esperoan. Aníbal kontu izugarritz ibiltzen zen, baina Sarak susmoa hartzen zion erakunde klandestinoren batekin loturaren bat zuela, seguruenik Portugalgo Alderdi Komunistarekin. Ez zion behin ere galdetu, hogeita lau urte-rekin ikasia zuen jakin-min batzuk ez zirela zilegi.

—Nolanahi ere, kezkatuta zaude—esan zion Sarak.

Ordurako, esan beharrekoak esanda, arruntean alde egina izango zen mutila, gai kaltegabe baina beti jakin-garri bati buruzko hitzaldiren batera. Diskrezioa behar zuela iruditu balitzaio, Avenida da Liberdaden gora egingo zuten berriro. Gaur ez, isilik zihoan. Kezkatan zen seinale.

—Ezin zaizu ezer ezkutatu?

—Aizu, ezagutu egiten zaitut. Ezin dut jakin? Ezin badut, esan lasai, eta goazen zinemaren batera.

Pixka batean zalantza egin ondoren, zera esan zuen:

—Jakin dezakezu, noski. Bai, kezkatuik nago. —Ahotsa apaldu zuen—. Berandu gabe mobilizatuko dute nire unitatea. Eta zer egingo dudan? Kontua ez naiz ni, edo zer komeni zaidan eta zer ez, ezpada zer komeni zaion Angolari.

—Ez dut ulertzen.

—Aukera bat da hara unitatearekin joatea eta azpilanean aritzea. Sabotajeak egitea, ulertzen? Baliagarria izan daiteke angolarrak mobilizatzeko kolonialismoaren aurka borrokatu daitezen eta zibil portugesek angolarrak sakailatu ez ditzaten. Baina ofizial beltz batek izango al du horretarako askatasunik, zaintzapean edukiko naute gau eta egun. Bada beste aukera bat...

Orain jende asko gurutzatzen ari ziren Rossio aldean, eta bazitekeen goregi esandako hitzen bat informatzaileen batek aditzea eta ulertzea. Gainera, bikote deigarria ziren: ez ziren usaian ikusten gizon beltz bat eta emakume zuri bat besotik helduta Lisboako kaleetan barrena. Horregatik neskaren belarriari itsatsi zion ahoa:

—Desertatzea, hanka egitea. Beste aldera pasatzea. Baliagarriagoa litzateke.

—Eta posible al da?

—Beharbada. Denbora behar nuke, ordea. Eta oraintxe erabaki beharra daukat gauzak aurretik presatzeko. Posible balitz...

—Abiatu baino zenbat denbora lehenago abisatzen dizute?

—Astebete lehenago, gehienez ere. Tarte txikia da.

Isilik geratu ziren Rossion jendea saihestu bitartean, jendea metrora edo autobusera baitzihoan eta andreak haurrekin baitzebiltzan erosketetan.

—Aterako al dizut gerezi-pattar bat? —galdetu zuen tanpez—. Aberastuta nago. Beka batekin ibili denarentzat, ofizial-soldata ikaragarria da.

—Ondo sartuko litzateke —esan zuen neskak.

Gerezi-pattarragatik ospea zuen taberna batera sartu ziren. Txiriboga estu bat zen, hamar lagunentzat tokia hortxe-hortxe zeukana. Bi kopatxo eskatu zituen mutilak.

—Gereziekin edo gabe? —galdetu zuen tabernariak.

—Gereziekin, gereziekin —esan zuen Sarak, barreka.

Zutik edan zuten barran, bezero guztiek bezala. Zotz batekin gereziak arrantzatu zituzten kopatxoan, eta gero hezurak tuka bota lurrera, halaxe zen ohitura. Amazonas tabernan, Arco do Cego-n, ohitura eskuzuri-azalak lurrera erortzen uztea zen bezala, gauaren akaberan tapiz bigun bat osatzeraino. Kanpora atera, eta Rossiiori itzulia eman zioten, isil-isilik. Restauradoresen mutilak zera esan zion:

—Gogora etorri zait gauza bat. Kontatu nizun mutikotan zure eskualdean izan nintzela? Bai, bai. Behin oporretan osaba batenera joan nintzen, Benguelara.

—Luandar peto orok bezala, Angolako bazter guztietan dauzkazu osabak.

—Luandarra asko mugitzen da. Barbaroak zibilizatzeke... Lubango aldean ere badut familia, baina ez naiz egundo izan han. Benguelan, ordea, behin hondartza batera eraman ninduten, hegoaldean. Caota-ra.

—Ezagutzen dut, han bada arrain-faktoria bat.

—Horixe. Badago han, ondoko bazter batean, beste toki bat beharbada ezagutuko ez duzuna, Caotinha, mui-noaren beste aldean. Zaila da hara iristea, bakarrik oinez edo jeepez joan daiteke.

—Badut horren aditzea. Ikustekoa dela diote.

—Zoragarria —esan zuen mutilak—. Ur garbia, baina hotza. Muinoak eta itsasoa besterik ez. Hondarra eta haitzak, badia txiki bat arrainez betea. Pitxi bat. Urpean igerika ibili nintzen han. Eta hara. Olagarro erraldoi bat agertu zitzaidan, urpean itsas zola arakatzan ari nintzela. Nire bizitzako ikaraldirik handiena izan da. Ez dakit nola iritsi nintzen lehorrera ere, ez daukat ezer gogoan. Olagarro beldurgarri baten irudia besterik ez daukat akorduan, garro guztiak nigana zuzenduta. Gaur ere oraindik, amesgaiztoak ditudanean, olagarro hura azaltzen zait. Batzuek amets egiten dute erortzen ari direla, beste batzuek hilekin, nik piztia horrekin egiten dut amets. Zin egin nuen, horratik, egunen batean itzuliko nintzela, egoki tresnaturik, olagarroa akabatzeke.

—Igual ez zen izango hain handia.

—Umearen irudimenaren lanak izan litezke. Bali-teke Jules Vernerren Nautilus ez izatea. Erraldoia zen, ordea, dudarik ez.

Avenida da Liberdadera itzuliak ziren, eta han la-saiago hitz egitea zeukaten.

—Atzo amets egin nuen olagarro horrekin.

—Eta?

—Deus ez. Bakarrik esan nahi du kezkatu-rik na-goela. Zein da zure aholkua?

—Niri galdetzea ere. Ozta-ozta lagundu diezazu-ke gogoetatzen.

—Aski litzateke hori. Noski, badaukat zure ahol-kuari men ez egitea. Gainera, beste batzuei ere galde-tuko diet. Zure iritzia jakin nahi nuke, ordea.

Sarak sekula ez zuen pentsatu auzi horretaz, emakumeak ez baitziren armadara joaten, ezta mediku gisa ere. Haatik, higuin zion aukera horri, eta hala adierazi zuen, zuhurtziaz, hitzak aukeratuz.

—Ez zaitut imajinatzen Luandan lehorreratzten eta Marginal etorbidean barrena desfilatzen zure konpainiaren buru. Zer esango du jendeak? Aníbalék hitz egin bai, baina azkenean angolarrak hiltzera etorri da. Horixe pentsatuko du jendeak.

—Sentimentalkeria hutsa. Ez dio ardurara nitaz zer pentsatzen duten besteek. Lagundu egingo dut, sasiko lanak eginez, taldeak antolatuz, beharbada armak ebatziz borrokan ari direnentzat. Oraindik ez dakit zer egin nezakeen, baina ordua iritsitakoan asmatuko dut.

—Beraz, jadanik erabaki duzu joatea...

—Bai zera! Aukera bat besterik ez da.

—Eta errazena. Nik nahiago bestea.

—Orain errazagoa izan daiteke. Han, Angolan, zailagoa izango da. Beste aukera, alde egitea, zailagoa da orain, dena antolatu behar litzateke eta. Gero, errazagoa izango da, nire herriaren alde borrokatu ahalko naiz bertatik bertara. Bitartean, zer egin dezaket atzerrian? Hantxe egonean egon, gertakariei begira?

—Beti izango duzu zer egina. Beste batzuk ere kanpoan dira, eta gauzak egin dituzte, lehen esan didazuenez. Zuk zergatik ez? Prestakuntza militarra duzu, erabilgarria izan daiteke hori. Eta garrantzitsuena, ideiak dauzkazu.

—Litekeena da arrazoi izatea, ez dakit. Tipo batzuei galdetu beharra daukat...

—Nik ez nuke dudarik egingo. Oraintxe bertan desertatuko nuke. Badira Frantziara pasatzeko moduak, jakinekoa da hori. Litekeena da erraza ez izatea, baina moduak, izan, badira.

Isilik geratu zen, dilemaren erdian. Handik pixka batera, Sarak galdetu zuen, zer egingo duzu?

—Oraindik ez dakit.

—Zirt edo zart erabaki behar duzu, ordea, zerorrek esan duzun bezala.

Pasieran jarraitu zuten, hizpidea berriro atera gabe. Arratsaldea zoragarri zegoen, eguzkiaz eta lagunaz gozatzeko. Ba al zen hori baino garrantzizkoagorik? Tokitan zeuden Malongori buruzko zalantzak, ikasturte-amaierako kezkak are urrutiago. Eta Angolako egoeran esperantzarako izpi bat agertua zen. Bazeukan eskubidea arnasa sakon hartu eta Aníbalen adiskidantza partekatzeko, mutilak segurtasuna ematen baitzion, nahiz eta irudiz hain maskala izan eta gaur bereziki aztortuta egon. Sarak atsegin handiz arnastu zuen aire freskoa, eta lagunari are estuago atxiki zitzaion.

| Aurkibidea |

Hitzaurrea	5
Etxea (1961)	15
Chana (1972)	211
Olagarroa (1982ko apirila)	335
Tenplua (1991ko uztailetik aurrera)	455